



TESTU BATEGINA urtarrilaren 22ko 7/1997 DEKRETU **Arena**, Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuaren Eskola-Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautzen duena, **urtarrilaren 30eko 10/2007 Dekretuak xedatzen dituen aldaketekin.**

I. ATALBURUA.- HELBURUA ETA EZARPEN-EREMUA

1. atala.- Dekretu honen helburua da Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko ikastetxeetako Eskola-Kontseilua nola hautatu, eraberritu eta osatu eta zuzendaria nola izendatu arautuko duen prozedura erregulatzea.

2. atala.- Dekretu hau Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatu guztietan aplikatuko da, baldintza hauek betetzen dituztenean:

a) Bertako Eskola-Kontseilua lehenengoz eratzen dutenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin izenpetutako itunak aurreikusten duenaren arabera.

b) Hautatuak izan zirenerako epea agortzearen, Eskola-Kontseiluko dagozkion kideak eraberritu egin behar denean.

II. ATALBURUA.- ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUEN ESKOLA-KONTSEILUA

1. SEKZIOA.- ESKOLA-KONTSEILUAREN OSAKETA

3. artikulua.- Honako kide hauek izango ditu ikastetxe pribatuaren Eskola Kontseiluak:

- Zuzendaria.

- Ikastetxearen titularraren hiru ordezkari.

- Ikastetxea zer udalerritan dagoen, hango udaleko zinegotzi edo ordezkari bat.

- Ikastetxeko irakasleen lau ordezkari.

- Ikastetxeko ikasleen gurasoen edo tutoreen lau ordezkari.

- Ikastetxeko ikasleen bi ordezkari, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen kurtsoetik aurrera.

- Ikastetxeko administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

Gainera, Hezkuntza Bereziko zentro espezifikotan eta gela espezializatuak dituztenetan, hezkuntza- arreta osagarria ematen duten langileen ordezkari bat ere izango da Eskola Kontseiluko partaide.



4. atala. 1.- Ikasleen Gurasoen Elkarteak legez osatuta egongo dira. Horietatik ikastetxeko ordezkariak handiena daukan elkarteak Eskola-Kontseilurako ikasleen gurasoen lau ordezkarietariko bat izendatu ahal izango du. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea hasi baino lehen, Gurasoen Elkarteak ikastetxeko titularrari jakinaraziko dio izendatutako ordezkariaren izena. Gurasoen Elkarteak epe honetan izendapena egin ez badu, ordezkari hau ohizko hauteskunde prozesuan hautatuko da.

2.- Ordezkari horrek ikasleen gurasoen hautesle-eroldan egon beharko du. Agintaldia, gehienez ere, lau urtekoa izango da eta kargua uzteko arrazoi bi egon daitezke: ikasleen gurasoen ordezkari hautatuen arrazoi beragatik eta, beste alde batetik, izendatu duen Ikasleen Gurasoen Elkarteak erabakita.

3.- Ikasleen Gurasoen Elkarteak izendatutako ordezkariak agintaldia bukatu baino lehen uzten badu kargua, Elkarteak beste ordezkari bat izendatuko du aurrekoak bete barik utzi duen denborarako. Hilabete bitan ez badute ordezkariak izendatzen, azken hauteskunde prozesuan botorik gehien dauzkan baina hautatua izan ez den gurasoen hautagaiak hartuko du kargua, Eskola-Kontseilua partzialki eraberritu arte.

4.- Ikastetxeko Ikasleen Gurasoen Elkartearen artean ordezkariak handiena daukana izango da dagozkien itunpeko irakaskuntzetako guraso gehien afiliatzen duena.

5. artikulua. 1.- Lanbide Heziketa ematen duten itunpeko ikastetxeek enpresa-munduko ordezkari bat ekartzeko aukera izango dute euren Eskola Kontseiluetara.

2.- Horretarako, ikastetxeak Lanbide Heziketako zer irakaskuntza ematen duen, horrekin zerikusia duen ordezkariak handieneko enpresa-erakundera joko du ikastetxeko titularrak, erakunde horrek ordezkaria izendatu dezan.

3.- Izendatutako ordezkariaren agintaldia, gehienez ere, lau urtekoa izango da. Izendatu zuen enpresa-erakundearen erabakiz utziko du kargua pertsona horrek.

6. atala.- Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, maila horretako ikasle batek Eskola-Kontseiluan sartzeko aukera izango du, hitzarekin baina boto barik, eta ikastetxearen barne-araudiak ezartzen dituen baldintzak betez, halakorik baldin badago.

2. SEKZIOA.- ESKOLA-KONTSEILUKO KIDEEN AGINTALDIAREN EPEA

7. atala. 1.- Itunpeko ikastetxeetako Eskola-Kontseiluko kideak lau urterako hautatuko dira, Dekretu honetako hurrengo idatzian, 8. atalaren 4. idatzian eta 10. atalean jasotakoari kalterik eragin barik.

2.- Dekretu hau indarrean sartu ondoren ikastetxe bakoitzean osatzen den lehen Eskola-Kontseiluko kideetatik erdia urte birako hautatuko da. Horren helburua izango da urte birik behin Eskola-Kontseiluaren erdia eraberritzea, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 56. atalaren 3. idatzian jasotakoa betetzeko. Idazati hori azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren azken xedapenetatik azkenean berridatzi zen.



3. SEKZIOA.- ESKOLA-KONTSEILUAREN ERDIA ERABERRITZEKO MODUA

8. atala. 1.- Dekretu hau indarrean sartu ondoren ikastetxe bakoitzeko hauteskunde-prozesuan hautatzen diren Eskola-Kontseiluko kideak erdi bitan banatuko dira, ordezkatzan dituzten eskola-elkarteko talde bakoitzean.

2.- Erdi bakoitza honela osatuko da:

a) Lehenengo erdia:

- Ikastetxearen titularraren ordezkari bat.
- Ikastetxearen irakasleen ordezkari bi.
- Ikastetxearen ikasleen gurasoen ordezkari bi.
- Ikastetxearen ikasleen ordezkari bat.
- Ikastetxearen administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria.

b) Bigarren erdia:

- Ikastetxearen titularraren ordezkari bi.
- Ikastetxearen irakasleen ordezkari bi.
- Ikastetxearen ikasleen gurasoen ordezkari bi.
- Ikastetxearen ikasleen ordezkari bat.

3.- Erdi bakoitzeko kideak zehazteko, hautatu guztiak kasuan kasuko hauteskunde-prozesuan lortutako boto-kopuruaren arabera ordenatuko dira, boto gehien eskuratu dituztenekin hasita. Boto-berdinketa egonez gero alfabetikoki ordenatuko dira, zozketaz ateratako hizki bat kontuan hartuz. Hori egin ondoren, lehenengoek lehen erdia osatuko dute eta gainerakoek bigarren erdia.

4.- Lehenengo erdiko kideak lau urterako izendatuko dira eta bigarren erdiko kideak urte birako.

9. atala.- Lehenengo hauteskunde-prozesua burutzen denean, Eskola-Kontseilua urte birik behin eta zatika eraberrituko da, eta honako bakante hauek beteko dira:

a) Eraberritze partzial horretako bakanteak. Ordezkariek bete beharreko agintaldia bukatzen dutenean hutsik uzten dituzten lekuak dira.



b) Aurreko eraberritze partzialeko bakanteak. Ordezkar horiek aurreko eraberritzean lau urterako izendatu arren agintaldiaren lehenengo urte bietan Eskola-Kontseilua uzten badute gertatuko da. Leku huts horiek bete egingo dira, ordezko batek behin-behinean bete baditu ere.

10. atala.- Eraberritze partzial batean aurreko eraberritze bateko bakanteak egonez gero, boto-kopuru gehien daukaten hurrengoek beteko dituzte. Ordezkar horiek urte birako izendatuko dira. Boto-berdinketa baldin badago, hautagaiak alfabeto-ordenaz izendatuko dira, beti.

4. SEKZIOA.- HAUTESKUNDE-GARAIA

11. atala.- Eskola-kontseiluko kideak ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan hautatuko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen duen epean.

5. SEKZIOA.- HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN OSAKETA ETA ESKUMENAK

12. atala.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du Eskola-Kontseiluko kideak hautatzeko epea irekitzen duen Agindua. Hori argitaratu eta hurrengo egunetik hasita gehienez ere zazpi egunetan ikastetxe bakoitzak hauteskunde-batzordea eratuko du eta honakoek osatuko dute: zuzendariak, batzordearen lehendakaria izango denak, eta aginte-organo horretarako ordezkar bat hautatu behar duten eskola-elkartearen talde bakoitzetik kide banak; azken horiek zozketa bidez aukeratuko dira. Halaber, talde bakoitzerako ordezko bana aukeratuko da. Ikastetxeko titularra edo eskuordetzen duen pertsona ere hauteskunde-batzordeko partaide izango da.

13. atala.- Hauteskunde-batzordeak honako eskumenak izango ditu:

a) Hautesle-errolak onartzea eta argitaratzea. Horren aurretik, ikastetxeko zuzendariak egin beharko ditu errolak.

b) Hauteskunde-prozesuaren egutegia finkatzea.

c) Hautagaiak aurkezteko epea jartzea.

d) Hautagaiak onartzea eta aldarrikatzea. Hautagaien zerrenda argitaratzen denetik hauteskunde-egunera lau egun egongo dira, gutxienez.

e) Hala baderitzo, hauteskunde-txartelen erdua onartzea.

f) Hauteskunde-mahaien eraketa bultzatzea.

g) Hautesle-talde bakoitzak botoa eman ahal izango duen ordutegia finkatzea.



6. SEKZIOA.- HAUTAKETA-PROZESUA

14. artikulua.- **1.-Ordezkarriak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea hauek daukate: gurasoek eta legezko tutoreek, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleek, eta Hezkuntza Bereziko zentro espezifikoetan eta gela espezializatuak dituztenetan, hezkuntza-arreta osagarria ematen duten langileek, beti ere hautesle-errolan baldin badaude.**

2.- Ikastetxearen Barne-Araudiak Lehen Hezkuntzako ikasleen ordezkari baten presentzia aurrikusten duen ikastetxeetan, ikasle hauek hautagai eta hautesle izango dira, aipatutako Araudiak finkatzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

3.- Gurasoen ordezkariak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea ikastetxean ikasten duten ikasleen gurasoek edo, kasua bada, legezko tutoreek izango dute. Umeen guraso-agintea guraso bakar batek daukanean, berari bakarrik dagokio hautesle eta hautagai izatea.

4.- Irakasleen ordezkariak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea klaustroan dauden irakasleek izango dute.

15. atala. 1.- Bakoitzari dagokion taldeko hautagai izan daiteke hautesle-errolan dagoen guztia. Kandidatura aurkezteko ezin izango da eskatu hautesle-kopuru zehatz baten sinadurek abalatura egotea, hautesle-zerrenda itxiak osatzea edo aipatutako eskubidea mugatzen duen beste edozer.

2.- Hautagai bat legez ezarrita dagoen elkarte, erakunde edo talde zehatz bateko kide gisa aurkeztu bada, hautagaiak aldarrikatzen direnean derrigorrez geratuko da jasota egoera hori.

16. atala. 1.- Eskola-kontseiluan ordezkariak hautatzeko eskubidea daukan eskola-elkarteko talde bakoitzeko hauteskunde-mahai bana eratuko da.

2.- Hautaketaren ordutegia ezartzeko, nahi duten hautesle guztiei botoa emateko aukera eman behar zaiela hartuko da kontuan.

3.- Ikastetxeko zuzendaria mahai guztietako lehendakaria izango da.

17. artikulua. 1.- **Zuzeneko eta isilpeko sufragioz egingo dira botazioak. Hezkuntza-sektore guztiek ikastetxeetako eskola-kontseiluko kideak hautatzeko prozesuetan parte hartzea errazte aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bide egokiak ezarri ahal izango ditu botoa ordezkatzeko edo botoa postaz emateko.**



2.- Boto-emaile bakoitzak dagokion hautestontzian utziko du boto-txartel bana, eta bertan idatzita egongo dira botoa ematen dien pertsonen izena edo izenak. Gurasoek eta irakasleek gehienez bina izen jarriko dituzte euren boto-txarteletan; ikasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta hezkuntza-arreta osagarriko langileek, ostera, izen bakarra.

3.- Baliogabeak izango dira aurreko paragrafoan ezarritakoak baino hautagai-izen gehiago dauzkaten botoak eta hautagai-izen errepikatuak dauzkaten botoak.

7. SEKZIOA.- HAUTAKETA-PROZESUAREN AZKEN FASEA

18. atala.- Hauteskunde-ekintza bakoitzean, boto-ematea bukatu denean, mahaiak botoak zenbatuko ditu. Zenbaketa publikoa izango da; horren ondoren akta idatzi eta mahaikide guztiek sinatuko dute. Akta hori hauteskunde-batzordera bidaliko da. Dekretu honetako 21. atalak jasotzen duen leku hutsak edo bakanteak betetzeko modua burutu ahal izateko, botoak jaso dituzten guztien izenak eta zenbat boto izan dituzten aktan jasoko da eta boto-kopuruaren arabera ordenatuko dira izenok. Boto-berdinketa badago, alfabetikoki ordenatuko dira.

Lortutako emaitzen ondoan, egin diren arrazoibide eta ohar guztiak jasoko dira aktan. Horrelakorik egonez gero, arrazoibidea egin duenak ere sinatu egin beharko du akta.

Halaber, 15. atalean aipatutako elkarte, erakunde edo taldeen erreferentziak ere aktan jasoko dira, hautagaiak aldarrikatzen direnean horrelako erakunde edo talderen bat egonez gero.

8. SEKZIOA.- ESKOLA-KONTSEILUAREN ERAKETA

19. atala.- Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratu eta gehienez bost eguneko epean ikastetxeko zuzendariak Eskola-Kontseilu berria eratuko du. Aipatutako aginte-organo horren eraketa-aktaren kopia Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du eta ordezkariak nortzuk diren jakinaraziko dio, Dekretu honen eraskinean datorren ereduaren arabera.

20. atala.- Eskola-elkarteko talderen batek edo batzuek, kideen erruz, ordezkariarik hautatu ez arren, ikastetxeko Eskola-Kontseiluaren eraketak balio osoa izango du.

9. SEKZIOA.- LEKU HUTS EDO BAKANTEAK BETETZEKO MODUA

21. atala. 1.- Dagokien eraberritzea baino lehenago, hautatutako ordezkariak Eskola-Kontseiluan egoteko beharrezko baldintzak izateari uzten badiote lekua hutsik geratuko da eta zerrendako hurrengo hautagaiak beteko du, jasotako botoen arabera. Leku hutsak betetzeko, azken eraberritze partzialeko aktetako zerrenda erabiliko da, bete beharreko lekua aurreko eraberritze partzial batekoa izan ala ez. Lekua betetzeko hautagai gehiago ez badago, bete barik geratuko da ikastetxearen Eskola-Kontseilua zati batean hurrengo eraberritu arte.



2.- Edozein eraberritze partzialen aurreko uztaitetik aurrera gertatzen diren leku hutsak eraberritze horretan beteko dira, eta ez ordezkoen bidez.

3.- Eskola-kontseiluko kide den irakaslea ikastetxeko zuzendari izendatzen baldin badute, hark utzitako lekua aurreko idazati bietan ezarritako moduan beteko da.

4.- Edozelan ere, ordezkoa Eskola-Kontseiluko kide izendatuko dute berriro partzialki eraberritzen dutenerarte, ordezten duen pertsona edozein epetarako izendatuta egonda ere.

22. atala.- Eskola-Kontseiluko izendatutako kideei dagozkien leku hutsak betetzeko, dagokion pertsona edo erakundeak kide berria izendatuko du. Ikastetxeko ordezkariak handiena daukan Ikasleen Gurasoen Elkarteak izendatutako ordezkariari dagokion leku hutsa betetzeko, Dekretu honen 4. atalan xedatutakoa ezarriko da.

III. ATALBURUA.- ZUZENDARIA IZENDATZEA

23. artikulua. 1.- Titularrak eta Eskola Kontseiluak adostu ondoren izendatuko da itunpeko ikastetxeetako zuzendaria. Kideen erabateko gehiengoz hartuko da ikastetxeko Eskola Kontseiluaren akordioa.

2.- Adostasunik ez bada, ikastetxeko Eskola Kontseiluak izendatuko du zuzendaria, titularrak proposaturiko irakasle-hiruko batetik. Kideen erabateko gehiengoz hartuko da ikastetxeko Eskola Kontseiluaren akordioa.

3.- Zuzendariaren agintaldiak hiru urte iraungo du.

4.- Ikastetxeko titularraren eta Eskola Kontseiluaren arteko akordioa beharko da zuzendaria kargutik kentzeko.

5.- Zuzendariaren izendapena edo kargu uztea noiz gertatu den, ikastetxeetako titularrek hamar eguneko epea izango dute, egun horretatik aurrera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariari horren berri emateko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Hautagaien aldarrikapenean ez bada aipatzen elkarre, erakunde edo talde zehatz batekoak direnik, independentea dela joko da partehartze, kontsulta eta aholkularitzako ikastetxearena baino eremu handiagoaren organoak osatzeko portzentaiak eratzeko.

Bigarrena.- Partehartzeari buruzko arauak hausten badira, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkariatzan salatu ahal izango da. Hori gertatzen bada, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 61. eta 62. ataletan ezarritakoa beteko da.



XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Salbuespen moduan, 96-97 ikasturtean itunpeko ikastetxeen aginte-
organoak ikasturteko bigarren hiru hilekoan hautatuko dira.

Bigarrena.- Dekretu hau indarrean hasi aurretik hautatutako Eskola-Kontseiluek euren
funtzioak betetzen jarraituko dute, bete beharreko epea bukatu arte.

Hirugarrena.- Agintaldia indarrean daukaten itunpeko ikastetxe pribatuetako
zuzendariak euren karguetan jarraituko dute agintaldia bukatu arte. Salbuespena izango
da hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren
59.4. azpiatalean jasotako lan-uztea.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den
egunaren biharamunean hasiko da indarrean.



ERASKINA

.....
.....**IKASTETXEKO ESKOLA-KONTSEILUAREN OSAKETA**

A) ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE EZ-HAUTATUAK:

- Zuzendaria: _____

- Ikastetxeko titularren ordezkariak: _____

- Ordezkaritza handiena daukan Gurasoen Elkartea: _____

- Enpresa-erakundearen ordezkaria: _____

B) ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE HAUTATUAK:

Irakasleen ordezkariak: _____

Gurasoen ordezkariak: _____

Ikasleen ordezkariak: _____

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkaria : _____



C) ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE HAUTATUEN ORDEZKOAK:

Irakasleen ordezkariak:

Gurasoen ordezkariak:

Ikasleen ordezkariak:

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkariak:

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ k _____

IKASTETXEKO ZUZENDARIA